

Añorga

Rezola greban hogeit urte eta gero

Altza

Drogak mahai gainean

Lierni Oramendi (lfnoa.: 943363436)

1 979ko maiatzean egin zen azken greba Cementos Rezola enpresan. Orduetik hona, protesta ekintzarik izan da, baina ez dira erabaki hau hartzera iritsi. Enpresa eta langileen arteko lan hitzarmena berritzeko garaian ez dago adostasunik eta langileak ostegun eta ostiraletan greba egiten ari dira. Aste honetan egiten ari dira, beraz, azken urteotako bigarren lan-uztea (maiatzak 11 eta 12), eta horrela jarraitzeko asmoa dute, proposamenik izan artean.

Azpikontatutako enpresarik ez

Enpresak eta langileak ez datoz bat. Rezolak enpresa bat azpikontatatu nahi du Aranburu eta Arrigorriagako harrobiak kudeatzeko. Harrobian orain arte aritutako langileek enpresako beste lanpostu batzuk beteko litzukete lan baldintza eta soldata berekin.

Langileek, berriz, asmo



Rezola enpresako langileak greba egiten ari dira ostegun eta ostiraletan. Egunotan gutxieneko zerbitzuak betetzen ari dira.

horren aurka egin dute. Ez dute azpikontatutako enpresarik nahi eta langile kopurua gutxitzeko arriskua dagoela diote. Bestalde, %7ko soldata igoera eskatu dute eta aurreapenak gerora ordaintzeko aukera izatea. Luzerako diren bajei dagokienez, egoera bakoitza Enpresa Batzordeak aztertzeko eskatu dute. Horrez gain, osasun eta lan

arloko baldintzei buruz aurrez egindako azterketako ondorioak lau urteko epean ezartzea nahi dute. Eta, azkenik, ordua-formazioaren arteko igoera exijitu dute, konbenioan zehazten denaren arabera.

Greba ostegun eta ostiraletan

Konbenioan sarturik dauden langile guztiak ari dira greba egiten. Ostegun eta ostiraletan, beraz, Añorga eta Arrigorriagako lantegiak geldirik daude. Dena den, gutxieneko zerbitzuak betetzen ari dira, eta huelga egunetan enpresa osoan hiru langile aritzen dira lanean. Hala ere, gutxieneko zerbitzuen inguruan ere izan da gatazkarik, izan ere, Arrigorrian aritu ziren hirurak zigortzeko asmoa du bertako zuzendariak ez zutelako beren eguneroko lana bete, kontuan hartu gabe gutxieneko zerbitzuak betetzen ari zirela.

Larraitx Garmendia (lfnoa.: 943391267)

a skagintza Altzan taldeak drogei buruzko ihardunaldiak antolatuko ditu maiatzaren 17 eta 18an. Bertan, Hegoamerikako egoera hurbilaraziko digute, besteak beste.

Venezuelatik etorritako Elsie Rosales eta Guillermo Gutierrez izango ditugu hizlari.

Elsie Rosalesek Zientzia Penalaz aztertzen du Venezuelako Unibertsitatean eta droga trafikoa aurka Ande inguruko herrialdeetan egiten den zigor politikaren berri emango digu. Hitzaldia datorren asteazkenean egingo da, 19.30etatik aurrera, Casares kultur etxean.

Ostegunean, hilak 18, aldiz, Guillermo Gutierrezen txanda izango da. Gutierrezek Ekuadorreko espetxeetako bizimodua erakutsiko digu erreportai batean. Zehatz mehatz, droga dela eta, preso sartu dituztenak nola bizi diren ikusi ahal izango dugu. Ondoren, solasaldia egingo da. Ekitaldia Casares kultur etxean izango da 19.30etan.

Horrez gain, ekitaldi osagarriak ere izango dira hilabete zehar. Hilaren 8tik 19ra liburu erakusketa ikusgai izango da kultur etxeko liburutegian. Hilaren 12an, 18.30etatik aurrera, Trapu Zaharra antzerki taldeak "La averia" lana eskainiko du.



IPURU S. L.
E R A I K U N T Z A K



Askatasunaren Hiribidea, 7 - 4^º F
Tfnoa.: (943) 42 41 21 • 20004 DONOSTIA